



JAKIUNDE
ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA

[Akademia](#)
[Jakitunak](#)
[Ekimenak](#)
[Argitalpenak](#)
[Multimedia galeria](#)

Berriak

[Jakiunde komunikabideetan](#)
[Ekitaldiak](#)



Berriak

Enrique Zuazua Doctor Honoris Causa izendatu du Lorraineko Unibertsitateak



Enrique Zuazuak Lorraineko Unibertsitateko Honoris Causa Doktoretza gradu eta titulua jasoko du, ikerketan egindako ekarpen garrantzitsuegatik eta Élie Cartan Matematika Institutuarekin egindako elkarlanagatik.

Lorraineko Unibertsitatea 2012.urtean sortu zen Metz-eko eta Nancy-ko hainbat erakunderen bat-egitearen ondorioz. Matematika arloko tradizio sendoko unibertsitatea da Lorrainekoa eta horren erakusgarri da bertan aritu diren goi-mailako matematikarien zerrenda: Élie Cartan geometrialaria (1869-1951), Laurent Schwartz analista (1915-2002, Fields Domina jaso zuena 1950ean) eta Jacques Louis Lions (1928-2001) matematikari aplikatua. Horrez gain, unibertsitatea teknologiaren transferentzian ere izen handikoa da matematika esparruan, INRIA (Institut National de Recherche en Informatique et Automatique) erakundearekin lankidetzan.

Enrike Zuazua eibartarra Madrilgo Unibertsitate Autonomako Matematika Aplikatuen Katedradun da, Ikerbasque-eko ikerlaria eta BCAM - Basque Center for Applied Mathematics- eko Zuzendari Zientifiko sortzailea, besteak beste. Saria datorren urriaren 9an saria jasoko du Nancy-n, Pierre Mutzenhardt Lorraineko Unibertsitateko Presidentearen eskutik eta inbestidura-hitzaldia eskainiko du "Matematika: etorkizunerako leihoa" izenburupean.

Itzuli



© Jakiunde. Miramar Jauregia Miraconcha 48, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa - Spain | (+34) 943 225 773
[Lege oharra](#) | [Mapa web](#) | akademia@jakiunde.org